# Auzitegi Gorenean 7 epaileren aurkako 6 kausa daude irekirik

BILBO

Euskal Komunitateko Justizia Auzitegi Goreneko Zibil eta Penaleko Salak, oporraldiaren ondoren, diligentzia desberdinak egin beharko ditu hamasei bat aforaturen kontrako 21 auzi erabakitzeko.

Auzitegi Gorenaren aginduz hasitako auzi hauetatik seitan zazpi epaile daude inplikatuta. Honako akusazio hauek leporatzen dizkiete: Instrukzioa maltzurki atzeratzea, prebarikazioa, salatzaileari jaramonik ez egitea, sinada faltsutzea, arduragabekeria temerarioa, eskubide zibikoak ukatzea, legezkontrako atxiloketa, legezkontrako inkomunikazioa, irainak, agiri eta tresnak miatzerakoan behar ez ziren kalteak eragitea eta sekretuak haustea. Salaketa hauen garrantzia kontuan izanik, kausa hauetako batzutan aurre epaiketak egin beharko dira salaketa eta kereilak onartzeko behar besteko arrazoirik dagoen erabakitzeko.

Bestalde, kereila edo salaketapean dauden aforatuen kontrako diligentzietan honako delitu hauek aipatzen dira: agintariarekiko desakatua, edanda gidatzea, kalumnia eta irainak, meatxu eta koakzioak, terrorismoaren apologia, legezkontrako telefono entzuketak, erreskatea jasotzeko legezkontrako bahiketa, eta banda armatu bati laguntzea.

MIKEL ARISTONDO ALKORTA



**1991ko abuztuaren 17an hil zen Itziarren, 49 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren**

Bere ama, Joxepa Alkorta Aizpuru; anai-arrebak; Jone Miren eta Joxe Mari Aizpurua, Antonio eta Begoña Atxega, Jon Gurutz; ilobak, Joxe Mari, Itziar, Naiara, Andoni eta Eneko; osaba, lehengusu eta gainerantzeko ahaide guztiek otoitz bat eskatzen dizue haren arimaren alde eta GAUR, IGANDEA, arratsaldeko 6etan, Itziarko Amaren parrokian, gorputza aurrean dela, izango den hileta elizkizunera etor zaiteztela.

Guztioi , aldez aurretik, eskerrik asko.

ITZIAR, 1991ko abuztuaren 18an.
**Helbidea:** Anduzpe taberna.

# HILDAKOAK

**BIZKAIA**

**BILBO**
**Pepita Alvarez Arellano,** 65 urte.
**Juliana Chiscano Atanasio,** 67 urte.
**Felicidad Ruiz Angulo,** 83 urte.

**ZORNOTZA**
**Emilia Orue Alvarez,** 65 urte.

**GERNIKA**
**Maria Garatxena Monasterio,** 94 urte.

**SANTURTZI**
**Dionisia Sanchez Izquierdo,** 77 urte.
**Juana Llorente Pastor,** 96 urte.

**GIPUZKOA**

**DONOSTIA**
**Angel Pujon Urrutia,** 68 urte.
**Pilar Aldabaldetrku Bergaretxe,** 66 urte.
**Jose Luis Arrieta Beristain,** 67 urte.
**Eloisa Mata Mata,** 82 urte.
**Clara Elizalde Urrutia,** 89 urte.

**ANDOAIN**
**Ignacio Oreja Zabaleta,** 40 urte.

**AZPEITIA**
**Luis Amenabar Orbegozo,** 63 urte.

**IRUN**
**Amalia Gutierrez Barajas,** 83 urte.

**LAZKAO**
**Jose Manuel Urrestarazu Munduate.**

**LEGAZPIA**
**Francisco Mencias Fernandez,** 64 urte.

**ORIO**
**Esteban Leunda Azkue,** 83 urte.

**USURBIL**
**Jose Manuel Iruretagoiena Bereciartua,** 46 urte.

**ARABA**

**GASTEIZ**
**Fernando Lopez de Luzuriaga Gantxadi,** 68 urte.
**Gerardo Bengoa Altuna,** 61 urte.
**Marcelo Chasco Gomez de Segura,** 76 urte.
**Jose Antonio Diestro Perez,** 81 urte.
**Lucas Bergara Larunbe,** 75 urte.
**Pilar de Santos Polo,** 84 urte.

**GESALTSA**
**Tomas Zelada Salazar,** 100 urte.

**NAFARROA**

**IRUÑEA**
**Julia Correcher Gomez.**
**Inocencia Goñi Billabona,** 95 urte.
**Sergio San Martin de Morentin,** 84 urte.
**Jose Luis Armendariz Unzueta,** 23 urte.
**Felipe Goñi Yabar,** 87 urte.

**ANTZIN**
**Victoria Ibañez Sanz,** 59 urte.

**BERRIOZAR**
**Alberto Cabalgante Jimenez,** 18 hilabete.

**MIRANDA-ARGA**
**Javier Artaso Orzanco, 59 urte.**

**TAFALLA**
**Florencio Baztan Moriones,** 77 urte.

**TUTERA**
**Irene Marañon Ganuza,** 88 urte.

**LAPURDI**

**ANGELU**
**Pierre Bidegain,** 70 urte.

**BAIONA**
**Lucie Etxart,** 49 urte.

**GETARIA**
**Pierre Larrousset,** 86 urte.

**HENDAIA**
**Fermin Urkia,** 85 urte.

**NAFARROA BEHEREA**

**DONAMARTIRI**
**Bernardin Bellegarde,** 84 urte.

**ESKELAK HARTZEN DIRA: ARRATSALDEKO 4ak ARTE: (943) 46 90 22 4etatik 7etara: (943) 37 15 45**

# Irregulartasunak Getxoko Hizkuntz Eskolako ingelesezko azterketetan

## Erreklamazioak egiteko orduan trabak jarri zituzten bertako irakasleek

**Getxoko Hizkuntz Eskolako ingeles azterketetan izandako irregulartasunak salatu dituzte Bilbo Handiko zenbait akademi pribatuk. Salaketa honen arabera, Getxoko eskolak ez zituen azken deialdiko azterketa libre batzuk zuzendu.**

GETXO

Erreklamazioak aurkezterakoan jarritako trabak gaitzetsi dituzte ingeles irakasle pribatuek Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Irakasle hauek diotenez, Hizkuntz Eskolekoek ez zieten ohartarazi hirugarren mailako azterketa batean idatzizko ariketa bat aldatu zutenean. «Bi aste aurretik jakin ahal izan genuen ikasle ofizial baten ahotik, aditz ariketaren ordez testu bati buruzko galderak jarri zituztela».

Akademietako bozeramaleen esanetan, «froga gainditu ez zuten ikasle talde batek azterketa ikustea eskatu zuenean, erantzunak agertzen diren orria bakarrik erakutsi zieten. Galderen orria ematera ukatu zirenez, ikasleek ezin izan zituzten okerreko erantzunak egiaztatu». Ikasle batzuk azterketaren lehen zatia gainditu zutela ikus ahal izan zuten, baina eskubidea izan arren ez zieten bigarren zatia zuzendu.

Laugarren mailako ikasleen azterketetan okerrak izan zirela salatu dute baita ere akademietako irakasleek. «Gainditu ez zuten ikasle batzuk Getxoko Hezkuntz Eskolan aurkeztu ziren azterketak ikusteko asmoz. Lehen zatia ondo zutela egiaztatu ondoren, bigarrenean ez zen zuzenketa eta puntuaketaren inolako aztarnarik somatzen». Bozeramaleek esan dutenez, ikasleek erantzun bakarra jaso zuten: «idazlan oso eskasa da».




Eskola pribatuetako iraskasleek Hizkuntz Eskola Ofiziala salatu dute.

# Bilbo Musikaterapiaren topagune

BILBO

Bilboko Terapeutika Ikerketa Zentruan datorren urrian Nazioarteko Musikaterapia Ikastaroa izango da. Lehen aldia da, aipatu zentru honek, musika bitarteko izanik, terapia lanak egiten irakasteko ikastaroa antolatu duela.

Iniziatiba, Bordeleko Musikaterapia Eskolaren elkarlanetik sortu da. Hain zuzen, Bordeleko Eskolako mediko eta teknikoak izango dira irakasle.

Matrikulazio epea zabalik dago. Psikologia, medikuntza, irakaskuntza, pedagogia, puerikultura edo logopedia tituluak izatea beharrezko izango da ikastaro honetan parte hartzeko. Erizainek, gutxiagotu psikikoen hezkuntz eta geriatriako hezkuntz arduradunek, musikoek eta terapeutek ere parte hartu ahal izango dute. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, ikastaro hauen oinarriak, «musika, terapia eta komunikazioa» dira.

ASTE NAGUSIA'91
ORDUTEGI BEREZIA

Jaiotan, gure Bilboko Bulegoetako ordutegia, hauxe izango da:

■ 19, ASTELEHENETIK, 22, OSTEGUNERA, BIAK BARNE, 9ETATIK 12ETARA.

■ OSTIRALEZ ETA LARUNBATEZ (23 ETA 24AN) GURE BULEGOAK ITXITA EGONGO DIRA.

OHARRA: Gogoratu, gau eta egun gagozala zuen zerbitzuan, gure Kutxazain Automatikoen bitartez

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa